

AHOLKULARITZA

Etxejabe Elkarteak maizter baten aurka jo nahi du, bizikidetzaren arazoak sortzen dituelako



Etxejabe Elkarte batean bizi naiz, eta orain dela hilabete batzuk pisu bat alokatu zitzaion gizonezko bati. Orduetik hona, bizikidetzaren

arazoak sortzen ari da: zaratak egiten ditu ordu txikietan, patiora zaborra botatzen... Zerbait egin dezakegu?

Hiri Errentamenduen Legeak dio, 1994koak, etxearen jabeak duela ahalmena maizterra auzitara eramateko hark sortzen dituen eragozpenak direla-eta, edo eraikinari edo besteri sortu dizkiok kalteak direla medio. Eta Jabego Horizontalaren legeak dio, 7.2 artikuluan, pisuaren edo lokalaren jabeak eta okupatzaileak ezin dutela gauzatu estatutuek galarazten duten jarduerarik. Etxejabe Elkarteak presidentuek eskatuko dio jarduerak galaraziak egiten ari denari horiek berehala eten ditzala. Burofax bat bidaliko dio, agiripean ziurtatua eta hartu izanaren adierazpena duena, edo bestela, notario bidez jakinarazi berehala bukatu behar dituela kalte egiten duten jarduerak ez badu auzitan arazoa konpondu nahi. Maizterrak bereari eusten badiu, presidentuek auzitara eramane ahal izango du; aurrez, hala ere, Etxejabeen Batzordeari deialdia egin behar zaio gai hori aztertzeko, eta aktan jaso behar da baimena ematen zaiola presidenteari auzibideak hasteko. Salaketa bat aurkeztu behar da, eta Etxejabe Batzordeak hartu duen erabakiaren kopia bat ere bai. Hori dela eta, lege-betebeharrak egoki zaindu behar dira Batzordearen deialdia egiterakoan (gai zerrenda eta abar), zitzazioak aurkezterakoan... Behar izanez gero, abokatu batengana jo liteke. Epailari galdegin dakioge agindu dezan berehala buka daitezela jarduera trabagarriak eta zaratak; halaber, eska dakioge ken diezaiola bezeroari etxebizitza erabiltzeko eskubidea (gehienak, hiru urterako galaraz diezaiok han bizitzea, eta betiere, arau-haustea eta kalteak zenbaterainokoak izan diren hartu behar da aintzat), edo/eta behin betiko baliogabetzat jo ditzala alokatu duen etxebizitzaren gainean dituen eskubide guztiak eta etxetik bidal dezala. //

Ontzi-garbigailu matxuratua ordezkatzeko proposamena egin diote, piezarik ez dagoelako, baina gastu handiegia da beretzat



Hiru urte dituen ontzi-garbigailua matxuratu egin da eta aldatu beharreko pieza ezin da eskuratu. Modelo berria merkeago

erosteko proposamena egin didate, baina orain ezin naiz horretan sartu. Zerbait egin dezaket?

1/2007 Errege Legegintza Dekretua mintzo da horretaz; azaroaren 16koa da. 127. artikulua hitz egiten du konponketei eta salmenta ondoko zerbitzuei buruz, eta iraupen luzeko produktuei dagokienez —hor legoke ontzi-garbigailua—, hauxe dio: kontsumitzaileak eta erabiltzaileak eskubidea izango du zerbitzu tekniko egokia jasotzeko eta ordezkoko piezak eskura edukitzeko, produktua ekoizteari utzi eta bost urteko epean, gutxienez. Txikizkako Merkataritza Arazuteko Legeak, berriz (1996koa da), hauxe dio: ekoizleak bermatuko dio erosleari, edo inportatzaileak bestela, zerbitzu tekniko egokia emango diola hark ekoizten edo inportatzen dituen ondasun iraupen luzekoentzat, eta halaber, ordezkoko piezekin hornituko duela, produktua ekoizteari utzi eta bost urteko epean, gutxienez. Ekoizleari dagokio betebeharrak, edo inportatzaileari bestela, baina saltzaileak ez dauka hor erantzukizunik.

Pertsona kaltetuak, lehenik, egiaztatu behar du ez direla bost urte igaro produktua ekoizteari utzi diotenenetik, eta ondoren, idatziz zuzendu behar zaio ekoizleari —agiripean ziurtatua behar du idatziaz—, eta eskatu behar dio pieza aldatu eta produktua konpon diezaiotela. Matxura konpontzeko piezarik eman ezin badiote, kontsumitzaileak ekoizlearekin adostu dezake produktu berria zenbat merkeago utziko dion, edo, bestela, auzitara jo dezake eta ordaina eskatu kalte-galerengatik. Horrez gain, udalerriko edo herrialdeko Kontsumo Zerbitzuetan ere galde lezake ea arau-hauste administratiborik gertatu den kontsumo arloan.

Kalte-galerak izan daitezke ontzi-garbigailu berria erosteko gastatu behar izan denaren neurrikoak. Auzitara jo aurretik, hala ere, abokatu batekin aztertu behar litzateke gaia. //

info@consumer.es

Idatzi eta zure arazoa konpontzeko bide egokiena zein izan daitekeen aholkatuko dizugu

Auzia aztertu ondoren, CONSUMER EROSKI-ren zerbitzu juridikoek esango dizute zure kasuan jarduera egokiena zein izan litekeen. Orientabidea baino ez da. Kasu bakoitzaren ezaugarriek sententzian eragina izan dezakete.

Bidalitako arazoa azaltzen duen gutuna. Eta berarekin batera auziaren inguruko dokumentazioaren fotokopiak. Eskura dituzunak. Orrialdeotan argitaratzen duguna izango da auziari emango zaion erantzun bakarra.

CONSUMER EROSKI aldizkaria San Agustin auzoa z/g 48230 Elorrio (Bizkaia)

epaiak



TXIKIZKAKO MERKATARITZA
Salgaiak itzultzea eta erosketa-txartelak
Denda batek ez du onartu erosketa-txartel bat, epea igaro zaiolako

Erosle batek galtza pare bat aldatu zuen saltoki batean. Beste era bateko galtzak hartu zituen, merkeagoak, eta dirua itzuli beharrean, erosketa-txartel bat egin zioten, 59 eurokoa, alde horixe baitzegoen bi galtza pareen artean. Kate bereko edozein saltokian erabil zezakeen txartela, eta horretara joan zen denbora baten buruan. Ordea, denda ez zioten onartu, epea igaro zitzaioela eta. Bezeroak salaketa jarri zuen katearen aurka, eta eskatu zuen dirua itzul diezaiotela edo txartela onartu. Eta irabazi egin zuen epaiketa. Bartzelonako Probintzia Auzitegiko 13. atalak zigorra jarri zion kateari (2008ko urriaren 9koa da epaia): diru itzul diezaiola agindu zion kateari eta legezko interesak ordain zitzala, bezeroari txartela eman ziotenean ez baitzioten jakinarazi epe baten barruan erabiltzekoa zela, eta, beraz, kontsumitzaileak ez zuen onartu baldintza hori. //

ZIRKULAZIO ISTRIPUA
Produktu akastunari dagokion erantzukizuna

Airbag-a ez da ibili eta istripuak are ondorio larriagoak eragin dizkio

Zirkulazio istripua eduki zuen pertsona batek, eta airbag-a ez zitzaion atera; ondorioz, salaketa jarri zuen auto ekoizlearen aurka. Kalte-ordaina eskatu zuen jasan zituen kalteengatik, berez ez baitzukeen halakorik edukiko segurtasun neurri hori behar bezala ibili izan balitz. Epaiketa irabazi egin zuen, baina enpresak helegitea jarri zuen Espainiako Auzitegi Gorenean, eta adierazi zuen gidariaren erruz gertatu zela istripua, desegoki gidatu zuela eta segurtasun uhalik gabe. Goreneko lehen aretoak atzera bota zuen helegitea, 2008ko azaroaren 7ko epaian. Epaitegiak nabarmendu zuen bidaia-riak babestea dela airbag-aren egitekoa, eta ez duela axola gidariak nola gidatu duen. Produktu akastunak gaizki funtzionatu zuen, eta oinarri horrekin, erantzukizun zibila eska daiteke. Segurtasun uhala ez erabiltzeko arduragabekeria izan ote zen edo ez jakiteko, ekoizleak ez zuen frogarik aurkeztu, eta ezin izan zen egiaztatu arrazoi horrengatik hartu zuela min edo larritu zitzaizkiola ondorioak, eta, beraz, argudio hori baliorik gabe utzi zuen. Hori guztia kontuan hartuta, 128.000 euroko zigorra jarri zion konpainiari. //



BIDAIA KONBINATUAK
Kontratua ez betetzea

Ezkonbidaiek ez ditu bete kontratuan ageri diren baldintzak

Bikote batek bidaia konbinatu bat kontratatu zuen. Kenyara eta Maurizio Uhartera joatekoak ziren ezkonbidaian, eta 6.052 euro ordaindu zuten hainbat zerbitzuren truke: hegazkin txartelak, zenbait hoteletan ostatu hartzea, batetik besterako bidaiek, bisitak eta 13 egunetarako mantenua. Bi egunetan, maila apalagoko hoteletan eman zieten ostatu eta lekuri gabe geratu ziren Maurizioarako hegaldian; ondorioz, hara zuzenean joan beharrean (4 orduko bidaia), eskalak eginarazi zizkieten, eta 17 ordu behar izan zituzten iristeko. Salaketa jarri zuten bidaia antolatzen zuten bidaia agentziaren aurka eta bidaia agentzia txikizkariaren aurka: 3.274 euro eskatu zituzten kontratua ez betetzeagatik, 600 euro hegaldian lekuri gabe geratzeagatik eta beste 3.274 euro kalte moralengatik. Auzitegiak aintzat hartu zuen salaketa, baina ez oso-oso, zati bat baizik. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko bigarren atalak, 2008ko irailaren 11ko epaian, 1.396 euroko kalte-ordaina ematera zigortu zuen bidaia agentzia. Kopuru horrekin kitatzen zen, auzitegiaren ustez, kalteak jasan zituzten egunei zegokien ordaina (lau egunetan izan zituzten gorabeherak). //

ANTZEKO AUZITAN ERABAKIAK ETA EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Gure atal honetan auzitegiek emandako epaiak jasotzen ditugu. Edukiari begiratzen diogu eta era guztietako zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat erabilgarri izan daitezkeen aukeratu. Baina ezin da ahaztu, antzeko gertaeren aurrean erabakiak desberdinak izan daitezkeela. Kontuan izan behar dira, besteak beste, eskura dauden frogak, alderdi bakoitzaren egoera eta epaia ematen duen tribunala.